

txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Ahuntzaren larrua

Do-Ho Suh artistaren *Some-One* artelana erakutsi digute aste honetan *Metropolis* saioan. Veneziako Biurtekoan egon da ikusgai eta, ehunka soldaduren identifikazio txapak elkarren artean josita, Koreako jantzi tradizional erraldoi bat egin du. Botere militarrek bere botere politikoa mantentzeko behar dituen milaka hildakoak ekarri nahi omen ditu gogora. Eguntako desfileak ekarri zizkidan niri gogora artelanak. Izan ere, paparra bete domina duten uniforme diferenteetako elementuak perretxiko-



EFE / RAMON CASTRO

Espainiako Armadakoen desfilea atzo, Madrilén.

ak bezala ugaltu dira Espainiako telebista kate guztietan. Uniformerik eta dominarik gabeko gerra kontueta adituez, zer esanik ez. Eufemismo ezin argigarriagoa asmatu dute oraingoan CESIDeko hamaikatzko lagun definitzeko. Eta Hispanitatearen Egun handia heldu da, gizarte militarizatu bat amets dutenek agur egin dezaten kameren aurrean. Estasia. Atzoko desfileko aurpegiei erreparatzea besterik ez dago *top-model* guztien poza nabaritzeko. Denen txapekin, gurean tradizionala den beste jantzi bat josi daiteke: ahuntz baten larrua. Eta gauerdian beharrean, egun argiz eta gero eta kontuagoan izateko moduan eztul egiten hasia da.

IÑAKI MUJIKA DONOSTIAKO HERRI IRRATIKO PROGRAMAZIOA BURUA



PABLO S. QUIZA

«Gipuzkoako prentsak ez du beste taldeen berri ematen dutenen antzik»

Realaren errealitatea ezagutzen duen kazetaririk bada, Iñaki Mujika izango da hori. Talde txuri-urdinaren egoera negargarria gertutik bizitzen ari da Herri Irratiko kazetaria.

Xabier Martin | DONOSTIA

Iñaki Mujikaren ahotsak azaldu die urte luzeetan Gipuzkoako zale gehienei Realaren nondik norakoa. Poztu eta tristatu egin dira ahots horrekin. Azken urteetan, baina, goibel egoteko zioak dira nagusi talde txuri-urdinarekin gogoratzerakoan. Egoera latz horretan badute bere

rola Realaren berri ematen dutenek.

■ **Realaren berri ematen duten garai onenak joan ziren. Bigarren B mailako talde batek kanporatu du Kopatik Real.**

Hori ez da gauza berria. Azken urteetan, Real txapelketa horretako lehen fasean kanporatu dute maila apalagoko taldeek.

Aurten, ordea, ligako egoera larriarekin egin du bat.

■ **Ez al da penagarria kanporaketa hori berria ez izatea?**

Egia da, bai; mingarria da beti guri egokitzea.

■ **Nolako izaten ari da prentsaren jarrera halako egoera lazarrian?**

Argi dago jarrera ezin hobea dugula Realarekiko. Egoera ulertu

REALAREN EGOERA

«Teknikoki ona baina psikologikoki oso ahula den belaunaldia egokitu da Realean»

eta erabakiak hartu behar dituztenengan sinetsi dugu. Giroa hobetzen saiatu gara.

■ **Zale askok diote prentsa bigunegia dela Realarekin, kritika falta dela...**

Gipuzkoako prentsa oro har oso orekatu da. Ez du Lehen Mailako beste edozein talderen berri ematen duen prentsaren antzik, ezta Bilbokoaren antzik ere.

■ **Beharbada, prentsa gogortuko balitz, zenbait jokalaria esnatuko lirateke, ezta?**

Kazetariak ez dugu Real gobernatzen. Bakoitzak bere iritzia dauka, baina arduradunek agintzen dute. Beraz, hobe da bakoitza bere lekuan geratzea. Realaren arazoa zera da: teknikoki ona baina psikologikoki oso ahula den belaunaldia egokitu dela taldean.

■ **Zer gertatzen ari da Realean?**

Jendea erosoegi zegoen etxe horretan. Oso erabaki txarrak hartu ziren garai batean eta orain ezin da dena batera aldatu. Gainera, Toshackek aldatu nahi duen gauza askoren erantzule ere bada Astiazaran, aurreko kontseiluan baitzegoen.

■ **Kraussi eta Clementeri kritikak erraz egiten zenizkieten. Zergatik ez Toshacki?**

John Toshackek gaitasun handia dauka, eta hori iaz frogatu zuen, ia miraria izan baitzen Realak Lehen Mailari eustea. Egia da, ordea, entrenatzaile lanak eta managerrarenak aldi berean ezin dituela egin.

■ **Lehen Mailan arrastaka ibiltzea baino, jaistea hobe dela diote zenbaitek...**

Hutsetik abiatu eta handitzen hasteko balio badu... Hala ere, nahiago nuke prozesu hori Lehen Mailan egingo balitz.

TELE 5



XOUSE SIMAL

Josetxo Lizartza, *Fronton* saioa aurkezlea.

‘Fronton’ pilota saioa Gaztela eta Leonen ere ikusten dute dagoeneko

Erredakzioa | DONOSTIA

Duela astebete, urriaren 6an, hasi ziren Asegarek ekoizten duen *Fronton* pilota saioa Gaztela eta Leonen ere ematen. Orain arte Hego Euskal Herrian eta Errioxan ikusi ahal zen saio hori, larunbatetan, 17:30ean Tele 5 katean. Bederatzigarren urtea da saio hori ematen dutena —1997ko urtarrila arte TVE katean; ordutik aurrera Tele 5n—. Tele 5 kateko iturrien arabera, ikus-entzumen eskaerari erantzun diote.

Fronton saioa Josetxo Lizartzak eta Juan Carlos Gonzalezek aurkeztzen dute, eta Jose Mari Ogeta pilotari ohiak egiten ditu komentarioak. Orain lau t’erdiko III. Telecinco Torneoa jokatzeko ari dira, eta laster lau t’erdiko binakako eta buruz buruko txapelketa ofizialak emango dituzte *Fronton* saioan. Gaur, Belokiren eta Nagoreren arteko lau t’erdiko partidua emango dute, Valladolidetik. Aurretik, Agirre-Zearra bikoteak Koka-Errasti bikotearen aurka jokatu du, 17:30etik aurrera.